

TRANSIZIOKO HARAN GARAIAK ETA MENDIAK

ARABA



A•28 Arboro mendia

Arboro mendiko maldan ebakitako erliebeek Arraiako eta Sabandoko haranak banatzen dituzte, Entziako mendilerroaren inguruetatik hurbil, baso eta mendiz osaturiko paisaia zabalean gailenduz. Ia lautada bilakaturako kareharrizko tontorretik mendi-hegalek aldapa gogorra osatzen dute, hostozabalen basoek guztiz estaltzen dituzten sakan eta malkar handiak sortuz.

Lur- eta intsolazio-moten arabera hainbat eremu aurkituko ditugu: artzaintza gehien dagoen guneetan bazkalekuak osatzen dituzten erkameztiak, kareharrizko mendi-hegaletan pagadiak, lur-eremu hareatsuenetan ameztiak, mendi-hegal eguzkitsuetan artadiak eta zuhaitzik gabeko mendi-mazeletan hainbat zuhaixka-komunitate. Ingurune-aniztasun horrek fauna-komunitate garrantzitsu bat izatea eragiten du, bereziki baso-inguruneei loturik dagoena: zapelatz arrunta, okil handia, katajineta, basakatua, etab.



A•29 Hornillo Mendia

Hornillo mendiaren goragune txikia Oteoren eta Erdi Aroko Antoñana herri ederraren artean altxatzen da Arabako Mendietan, gure lurraldean ondoen kontserbatutako eskualdeetako batean.

Erliebe malkartsu eta arrokatuak, batez ere hegoaldeko magalean, eta bertako aldapetan ezpelekin korapilatzen den artadi trinkoak itxura itxia eta helezina ematen diote toki honi; hori dela eta, habitat paregabea da arroketako hegazti-espezie batzuentzat. Basoa behealdean bakarrik zabaltzen da, eta han, antzinako Pierolako San Julian komentuarien hondakinen inguruan, erkameztiak eta larre-eremuak zabaltzen dira.